

Y el Sr. Camprodon daba fin á la fiesta del banquete con esta última estrofa de su hermosa composición

¡Patria noble y generosa,
hoy de ardiente fiebre esclava!
¿Porqué al hacerte tan brava,
no te hizo Dios mas dichosa?

Pero rica ó haraposa,
por la fē que nunca engaña;
brindo á la primera hazaña
de las bascongadas tropas:
¡Arriba todas las copas!
¡Hurra por la madre España!

FRANCISCO LOPEZ ALÉN.

PAKIA

(NERE ALABA FELIPACHORI)

Nere zoragarriya,
nere eguzkiya,
atoz nere besora
aingeru argiya,
zuri begira nago
choraturik iya,
nere buruz askotan
ezinikan fiya,
pentsatzen detalarik
zerutik jachiya
zerala, Jaunak nere
onez biraliya,
zeñagatik daukadan
biyotza jarriya,
aiñ ondo, nola arbol
goichuan kabiya,

berarekin nairikan
eroso baliya,
gordetzeko merezi
zentzaken sariya.

Gerora eramango
zaitut Gernikara,
lege zarrak gordeak
dauden kuch artara;
erakustera nola
dan arbol bakarra,
euskalduñ jayo diran
guztiyen izarra,
zeñak daukan berekin
gure libru zarra,
eta maitatzen degu

amabat, Euskara.

Zure aita ta amak
naiko degu egiñ
borondate barrundik
datorrenarekiñ,
joan etorri gozo bat
araño, zurekin,
ta biyotze ko asmo
on osoarekiñ
eskatu gure amak
ez dezan aldegiñ
andikan, eta gero
berekiñ itzegiñ,
eta bere izenez
biyotzez otsegíñ,
askorekiñ bezela
ar dezan atsegíñ.
Zuk idiki dirazu
pozezko atia,
nere biyotzeratu
zeraden maitia;
amarekin neroni
naiz zure jabia,
zeña egiyaz orla
on dan esatia,
merezi degu denok
ondo izatia,
gozaturik, ekarri
diguzun pakia.

Pakia: zer itz ona
eta zer ederra
dan, itzaltzia gure
artetikan gerra;
ezin dianian gauza
egoki bat era,
amilltzen da goichuan

daguena bera,
eta nola ez geran
odoletik bera,
aditzen degu ezkil
gabazku an kera,
sentiera sarturik
gure biyotzera,
esaten digularik
orra or, aukera;
arboletik orriyak
banaka artzera
zuazte eta gero
ekarri onera,
bana ditzagun denak
mundu zabalera,
poza bildu dezagun
nere estalpera;
au aditurik, ¿nola
poztuko ez gera
nola amari utzi
erortzen lurrera
beti joan bear badu
Euskarak aurrera?

Nere alabachua,
nere aingerua,
Euskaragatik nago
biziro erua;
ori da nik daukatan
betiko lelua,
zeñaz kentzen diyotan
amari belua,
edo barrunen duben
miñezko berua,
zeñak zuri zabaltzen
dizun gaur egua,
eskeitze ko euskal zar
arte an, zerua.